


GUGGENHEIM BILBAO XX 1997  
2017

Prentsarako txostena



**LAGUNEK BADUTE "ETSAIA".  
JUAN PÉREZ AGIRREGOIKOA ARTISTAREN  
DEIALDIA GUGGENHEIM BILBAO MUSEOKO  
LAGUNENTZAKO**

## PRENTSA OHARRA

### **Guggenheim Bilbao Museoaren Lagunak izango dira protagonista Juan Pérez Agirregoikoa artistaren *Lagunentzat kontzertua, etsai bat dago* ekintzan**

**Guggenheim Bilbao Museoak XX. Urteurrena ospatuko du bere Lagunekin**

Guggenheim Museoak Juan Pérez Agirregoikoa artista gonbidatu du Museoaren Lagunekin ekintza artistiko bat burutzeko. Artista donostiarra Parisen bizi da gaur egun, eta nazioartean ezaguna da; 500 pertsonak baina gehiago arituko dira bere performancean datorren urriaren 1ean, Museoako Atrioan.

Ekintza musikatua izango da, humore, ironia eta aldarrikapenez betea; *Lagunentzat kontzertua, etsai bat dago* izena eman dio artistak, Ozenki Otxoteak egindako *Ukabilak gora abesteko kontzertua* obrari erreferentzia eginez. Juan Pérez Agirregoikoa lau abesti hautatu ditu espainiar eta euskal kantutegitik, hitzak aldatu eta lau antifilosofo materialista frantsesen irakurketan oinarritutako letrak ipini ditu: Guy Lardreau, Jacques Fradin, Gilles Grelet y Jacques Lacan dira antifilosofo horiek. Praktika itxuraren eta iraultzaren ardatz gisa bezalako gaiak lantzen dituzte abestiek, eta Otxotearekin batera kantatuko dituzte igande honetan Museoaren 500 Lagunek. Artistaren hitzetan “Zer dela eta egiten dute porrot iraultzek? Hori izango litzake erantzun zirkularra norbaitek galdetuko balit zein den obra honen esanahia eta aldi berean hori litzake galdera”.

Duela hamar urte, Museoaren X. Urteurrena zela-eta, Lagunek modu aktiboan parte hartu zuten Maider López artista euskaldunaren ekintza artistikoan, nazioartean ezaguna hura ere. Bere XX. Urteurrenean, Museoak berriz gonbidatu ditu bere Lagunak, artearen eta kulturaren inguruan sortutako Community delakoaren funtsezko kideak, ikusgarria izango den ekintza artistikoan parte hartzera. 16.700 pertsonak baino gehiagok osatzen dute Guggenheim Bilbao Museoaren Lagunen kolektiboa, Europa mailako jendetsuenetako bat eta erakundearentzat funtsezkoa.

Ekintza horretan adin guztietako 500 bat Lagunek parte hartuko dute; 9 urtetik gorakoak izango dira denak, musikari edo abesteari dagokionez ez dute aurretiazko ezagutzarik behar, eta goitik behera beltzez jantzita joango dira. Lagunek Otxotearekin batera entseatuko dute larunbatean, irailak 30ean, Museoako Entzungelan, eta urriak 1ean, igandean, izango da ekintza artistikoa Atrioan, 9:00etatik 10:00etara, Museoa ireki aurretik. Performancean parte hartzen duten Lagunen artean Amberesera joateko bi pertsonentzako bidaia bat zozketatuko da, Flandes eta Bruselas- Belgikako Turismoaren en laguntzari esker.

### **Juan Pérez Agirregoikoa**

Juan Pérez Agirregoikoa (Donostia, 1963) Arte Ederrak ikasi zuen Euskal Herriko Unibertsitatean eta Filosofia Parisko Paris VIII Unibertsitatean; geroztik, Frantziako hiriburuan bizi da. Bere obrak pintura eta marrazkiaren esplorazioa izan zituen abiapuntu, eta eskultura, instalazioa edo bideoa bezalako diziplinetara hedatu zen gero. Ironia eta aldarrikapenez betetako estilo bereziarekin, baina humore zorrotzarekin betiere, artistak hainbat ikuspegi baliatzen ditu ikusleak bere kontaketa propioa eraiki dezan.

# GUGGENHEIM BILBAO XX 1997 2017

*Instalazio bilakatutako proiektioa, orain arte egin duen multzo bisualik handinahiena, Guggenheim Bilbao Museoaren Bildumaren parte da 2007tik. Gainera, 2015ean artistak pintura handi bat egin zuen Guggenheim Bilbao Tabernarentzako: *La forêt des maîtres-sots* (Nagusi tentelen basoa).*

Juan Pérez Agirregoikoren lana mundu osoko museo eta galerietan egon da erakusgai. Honako hauek nabarmentzen dira: Museo Guggenheim Bilbao, Museo Reina Sofía, Amberesko MUHKA, Gasteizko Artium, Madrilgo la Casa Encendida, São Pauloko MAM eta Lyon (Frantzia) eta São Pauloko (Brasil) Bienaleak.